

Berrigara

Bota ala laga

Estaziño
zaharraren
lekuan
etxe
berriak


MARKIEGI
autoak



**FIAT PUNTO
BERRIA.**

**ZATOZ MARKIEGIRA
ETA EZAGUTU
AUTO ESPEZIE
BERRIA.**

Leizeaga 1 (S. Lorentzo Industri Poligonoa)
BERRIGARA Tf. 943 76 35 09 Faxe 943 76 56 76



BICIPRECISIÓN IGARTUA

Zubieta 5-7, posta kutxa 9, 20570 Bergara. Tf. 943 76 11 21, faxa 943 76 06 75, mobila 689 76 11 21

Boomerang operazioa

ZORATU egin garela esango dute
Erabilitako koadroa erosi egingo dizugu

MASSI koadro bat erostea erabakitzen baduzu, harritura geratuko zara erabilitako koadroari emango diogun balorazioarekin.

Ez dio axola zenbat urte dituen, ezta bere egoera ere, ez kalitatea, ez marka...

Axola zaigun gauza bakarra

MASSI koadro bat erostea erabaki dezazula da!

GENIUS



Prezioa: 150.000 PTA
Zure koadroa: -52.000 PTA
Guztira: 98.000 PTA

MASSI

Mendirakoak

Errepiderakoak



Prezioa: 109.000 PTA
Zure koadroa: -35.000 PTA
Guztira: 74.000 PTA

THRON



Prezioa: 85.250 PTA
Zure koadroa: -25.000 PTA
Guztira: 60.250 PTA

WILL
POWER



Prezioa: 90.500 PTA
Zure koadroa: -30.000 PTA
Guztira: 60.500 PTA

GARA
MEGA



Prezioa: 66.000 PTA
Zure koadroa: -18.000 PTA
Guztira: 48.000 PTA

ALTEC II



Prezioa: 75.300 PTA
Zure koadroa: -27.000 PTA
Guztira: 48.300 PTA

TRAX



Prezioa: 47.000 PTA
Zure koadroa: -18.000 PTA
Guztira: 29.000 PTA

HARD
SWING



Prezioa: 39.000 PTA
Zure koadroa: -12.000 PTA
Guztira: 27.000 PTA

Operazio honek 1999.eko urriaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko balioa du eta stocka agortu arte.



Herrimina

Josune Iñarra / Irakaslea

Herrimina dut gaur. Bart, zortzi orduko loaldian zehar, birritan esnatu naiz eta begiak zabal-tzean, non nengoen egiazatzeko beharra somatu dut. Gogoratzen ditudan bi ametsak ederrak izan dira. Biak ume eta gazte denborakuak.

Ez da hau gertatzen zaidan lehenengo aldia, ezta gutxiagorik ere. Lehenengo ametsean, askotan agertu izan zaizkidan irudiak ikusi ditut: Goiko Konde, Zabalotegiko mojen patioa, ospitala, San Pedro eliza... eta lagunak etenbarik jolasean. Batzuetan soka-saltoan, beste batzuetan goman, kromotan, txorro-morroan. Pozik, barrez.

Bigarreanean, ostera, institutuko kontuak izan ditut bidai-lagun: azterketa garaia bazen ere, gustura genbiltzan lagunak Bergarako jaixetarako blusak gertatzen. Bi aste besterik ez jaixak ailegatzeko! Momentu horretan esnatu naiz, urduri.

Erdi lo oraindik, ez dut guztiz esnatu nahi izan. Gertatutakoaren analisisa egin nahi izan dut. Ametsa sakona izaten denean, une bitxia izaten da esnatzearena. Gauean bitzakoa ametsa izan

dela onartu behar da, eta ume izan beharrean hain ume ez garela gogoratu.

Nostalgia deritzot honi. Bergaran bizi izandako urte gehienak alaitasunez gogoratzen ditut, baina distantziak (bai espazioan, bai denboran), gauzak beste modu batera ikustarazten dituela ohartu naiz. Badirudi momentu goxo guztiak kutxa batean gordetzen dituzula eta hain goxo ez direnak, aldiz, goxo bihurtu eta kutxa berean sartu. Baina memoriak ez ditu irudiak bakarrik gordetzen, usainak ere gordetzen ditu. Usain ugari ditut gogoan eta usain horiek behin eta berriz agertzen zaizkit ametsetan: Zabalotegiko bidetxurrean

“Bergaran bizi izandako urte gehienak alaitasunez gogoratzen ditut, baina distantziak (bai espazioan, bai denboran), gauzak beste modu batera ikustarazten dituela ohartu naiz”

ateratzen ziren larrosa txurien usaina, elizako kandelena, ikastolako atarikoa, Enseñantzako pianoen gela zaharrek... Auskalo nik gordeta dauzkadan usain horiek egiazkoak diren!

Duela hilabete batzuk, Bartzelonan bizi den lagun mexikar baten eskutitza jaso nuen eta artikulua hau idazten hasi naizenean, hark esandakoa bururatu zait. Hauze zioen:

“Distantziak batzuetan min ematen du, baina momentu onak gordetzen ditudanean, min hori desagertzen hasten da. Mexiko bihotzaren barren-barrenean daramat. Egun batzuetan, malenkonia ikusten dut etxe inguruan bueltaka, nik etxean sartzen uzten diot, kafea atera eta poliki-poliki oroitzen den elkarrekin edaten ditugu. Nazkatzen hasten denean, atea zabaldu eta lasai joaten uzten diot”.

Niri, gaurkoan, goizean goiz egin dit bisita, lekutxo bat utzi diot eta une batez besterik ez bada ere, elkarrekin egon gara. Orain agur esateko garaia heldu dela iruditzen zait, bai baitakit hurrengoan ere, etxeko atea ixil ixilik irekiko duela.<

barruan



Joseba Arregi

EAJko parlamentaria

“Beldur naiz gure artean pakea ez ote dagoen gehiegi mitifikatuta”

8.



“Elosukorta”

Harrijasotzailea

“Harrijasotzea hobby bezala daukat. Diru gutxi eta neke asko izaten dira tartean”

23.



Iñaki Zabala

Ollagorako presidentea

“Clemente Realean? Karakterra badauka baina entrenadoriak ez ditte golak sartzen...”

29.

orain dela...

BAILARAN GERTATUA

1961. Urriaren 31n Vasco-Navarro trenak inoiz izan zuen istripurik larriena gertatu zen Gatzagan: hiru pertsona hil eta sei zauritu ziren.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1561. Urriaren 27an Lope de Agirre afusilatua izan zen.
1920. Urriaren 28an Alfa kooperatiba sortu zen Eibarren.
1945. Urriaren 31n Ignacio Zuloaga pintorea hil zen.
1979. Urriaren 25ean Gernikako Estatutuari baietza.
1987. Urriaren 29an Eduardo Txillidak "Principe de Asturias" saria jaso zuen.

MUNDUAN GERTATUA

1922. Urriaren 27an, Benito Mussoliniren "Erromara Ibilaldia" amaitu zen.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 22
 6-7-21-28-34-43 (osag.40/itz.1)
Astelehena 25
 3-15-16-26-32-40 (osag.13/itz.6)
Martitzena 26
 10-13-15-35-47-49 (osag.46/itz.1)
Eguaztena 27
 6-12-17-27-29-44 (osag.43/itz.1)

PRIMITIVA

Zapatua 23
 7-11-19-25-33-41 (osag.17/itz.5)
Domeka 24 Saritzarra
 1-3-10-14-30-36 (osag.19/itz.6)

ONCE


Eguakitza 22: 75.937 (031 seriea)
Astelehena 25: 08.802
Martitzena 26: 49.582
Eguaztena 27: 07.448

BESTE BATZUK

Amnistiaren aldeko autokarabanaren zozketa
 Zenbaki saritua: 149.090
 Ordezkoa: 065.299

Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Udazkeneko ohiko eguraldia izango dugu asteburuan: haizea, ostarte zabalak eta tarteka euria. Domekan eta astelehenean zapatuan baino hobe izango dugu, tenperaturak gorra egingo du eta haize arin aldakorra izango dugu.

Ilargiaren aldiak



Ilbete: urriak 24



Ilbehera: urriak 31



Ilberri: azaroak 8



Ilgora: azaroak 16

Eguzkia

Domeka, urriak 31



Sortu: 07:46



Gorde: 18:15

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 21	22	7	1,1
Eguakitza 22	19	15	0,4
Zapatua 23	21	15	-
Domeka 24	21	14	-
Astelehena 25	21	10	-
Martitzena 26	20	6	3,6
Eguaztena 27	22	9	-

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Atzera-karga


Gurdiak edo beste edozerk eukitzen duena atzealdea gehiegi kargatu ezkeru.

- Burdi-garua
 atzera-kargiak
 kargau giñuan da
 justu-justuan
 aillegau giñuztan
 etxera.



JOSU OKINA

Mozkor handiagatik ere esan ohi da, umorez:
 Atzo azelakotxe atzera-kargia eruan giñuan etxera.



Ordu aldaketa

Domeka goizean, **03:00etan**, ordubete atzeratu beharko dira ordulariak. Beraz, goizeko **02:00ak** izango dira. Hurrengo ordu aldaketa martxo aldean izango da.

Farmaziak

Eguakitza 29:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Zapatua 30:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Domeka 31:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Astelehena 1:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Martitzena 2:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguaztena 3:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 55.

Eguena 4:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Ogia

Domeka 31: Konde.

Astelehena 1: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	
DYA	943 78 71 91
Gurutze Gorria	943 76 55 78
Larrialdiak	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 41
Anbulantzia	943 55 49 63
Udaltzaingoa	943 77 91 08
Ertzaintza	943 76 53 41
Suhiltzaileak	943 78 28 31
Osasun Etxea	943 76 24 41
Arrasateko ospitela	943 03 50 01
Asepeyo	943 76 16 14
Pakea	943 76 13 48
Angiozarko medikua	943 78 90 23
Antzuolako medikua	943 76 62 03

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 11 12 11
Taxiak	943 76 19 51
RENFE	943 28 38 31

UDALA

Udaletxea	943 77 91 08
Udal Artxiboa	943 77 91 08
Igerilekuak	943 76 20 53
Kultur Etxea	943 77 91 08
Liburutegia	943 77 91 08
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 08

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 11
Erregistroa	943 76 13 11
Jardun	943 76 38 31
Jubilatuena Etxea	943 76 21 41
Postetxea	943 76 28 31

zorion agurrak




Alazne Etxabbarri
Azaroaren 4an
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Leire Sanz
Urriaren 30ean
3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Igone Garitano
30ean urteak. Urte
askotarako! Etxeko-
ak, bereziki Joseba
eta Andoni.




Markel Lete
Urriaren 31n
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Miren Etxeberria
Urriaren 29an
14 urte. Urte askota-
rarako! Koadriako-
ak eta etxekoak.



Aizibar Bikuña
Urriaren 30ean
9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Mikel Rodriguez
Azaroaren 4an
2 urte. Urte askota-
rarako! Etxeko-
ak eta lagunak.



Antxon Arregi
Azaroaren 3an
4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Alazne Murgizu
Urriaren 30ean
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Helena Diaz
Urriaren 29an
5 urte. Urte askota-
rarako! Gorka eta
familiakoak.



Jon Mujika
Azaroaren 4an
5 urte. Urte askota-
rarako! Aita, ama
eta Mikel.



Idoia Igartua
Urriaren 31n
13 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Jose Luis Agirre
Urriaren 29an
40 urte.
Urte askotarako!
Sara eta Leire.



Patty
Azaroaren 4an
20 urte. Urte askota-
rarako! Ama,
Oihana eta Joakin.




Andoni Barriobero
Urriaren 31n
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gaizka Marzan
Urriaren 31n
10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Azkarate
1ean 3 urte. Urte
askotarako! Etxeko-
ak eta Imanol, Iñaki
Gorka eta Olatz.



Iosu Zubikarai
Urriaren 31n 16
urte. Urte askota-
rarako! Olaia, Larraitz
eta batez ere Idoia.



Endika Gandiaga
Azaroaren 2an
4 urte. Urte askota-
rarako! Aita, ama
eta Aitzol.



Mireia Argarate
Urriaren 30ean
8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Andoni Moñux
Azaroaren 2an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Martin Elgarresta
Urriaren 30ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Senitartekoak.



Aitzol Asula
Urriaren 30ean
8 urte. Urte askota-
rarako! Aita, ama eta
bereziki Manex.



Agustina Zurro
Azaroaren 2an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.

ESKER ONA

Ines Larrañaga Zabaleta

Santos Baskaranen alarguna

Eibarren hil zen
1999ko urriaren 21ean,
85 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Esteban Quintana Angulo

Bergaran hil zen
1999ko urriaren 11n,
89 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

hildakoak

BERGARA
Ines Larrañaga Zabaleta
Urriak 21, 85 urte

mezak

Santa Marina Domekak: 11:30, 13:00. Zapatuak: 19:00. Ianegunak: 19:30.	San Lorenzo Zapatuak: 20:00. Angiozar Domekak: 10:30. Eguakitza: 19:00.
San Pedro Domekak: 09:30, 12:30. Zapatuak eta ianegunak: 19:00.	Monja Zaharrak Domekak: 19:30. Zapatuak eta ianegunak: 20:00.
Osintxu Domekak: 11:30. Zapatuak: 19:00.	Mizpirualde Domekak: 11:45. Zapatuak eta ianegunak: 11:45.
Elosu Domekak: 10:00.	Mariaren Lagundia Domekak: 10:00. Zapatuak eta ianegunak: 09:00.
Ubera Domekak: 10:30.	Antzuola Domekak: 09:00, 11:30.
San Juan Domekak: 11:00.	Basalgo Domekak: 13:00.
San Prudentzio Domekak: 10:30.	Uzarraga Domeka: 10:00.
Labegarieta Domekak: 11:00.	

jaiotakoak

BERGARA
Adrian Leonardo Moragues
Urriak 13
Manex Alberdi Agirre
Urriak 16
Iñaki Olabarria Vicente
Urriak 18
Olatz Muruamendiaraz Basterra
Urriak 18
ANTZUOLA
Unai Yera Calvo
Urriak 11

*Datorren asteko alean,
AZAROAREN 5a
eta **AZAROAREN 11**
bitartekoen zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

URTE-MEZAK
Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan 11:30etan.
San Pedro
Hileko 3. astean, domekan 12:30etan.

ANTZERKIA

► Esteve y Ponce taldearen **"Los hermanos pirracas en Nemequitepá"**, gaur, hilak 29, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **Red house** (*Caiga quien caiga* programako taldea) eta **Benjamin Tehoval** taldeekin blues gaua gaur, eguakitza, 22:30etan Kartzela Zaharrean.

► **The Nomads, Tuperguarros eta Fist Fucking** taldeak bihar, zapatua, 22:00etan Jamen.

► Norvegiako **Bergen-eko ahots taldearen emanaldia** bihar, zapatua, 20:00etan Mariaren Lagundiako elizan.

ERAKUSKETAK

► **"Euskal Herria eta dinosauruak"** erakusketa Kultur Etxean, domekara arte.

► **Josean Santorcuatoren** plumilak.

LEHIAKETAK

► **XIII. Arrasate lehiaketak:** komikia, irrati erreportajea, ipuina, poesia eta bertso papearak. Lanak entregatzeko epea 2000 urteko otsailaren 11n bukatuko da. 943 77 12 28.

JAIAK

Andaluzia eguna

Non: Plazan eta Udal Pilotalekuan.
Noiz: zapatuan, urriak 30, goizean.

Udazken Kulturalako programazioarekin jarraituz, Udalak, Arrasateko Al Andalus zentro kulturalaren laguntzaz, Andaluzia eguna iragarri du bihar zapaturako, urriak 30. Goizeko 11etatik aurrera andaluziar gastronomiako produktuak dastatzeko aukera izango da San Martin plazan eta, era berean, Al Andalus zentro kulturalako "Coro rociero" abesbatza eta "Sueño de Andalucía" dantza taldeen emanaldia izango da. Arrasateko Al Andalus zentroak bere sorreraren 10. urtemuga beteko du urtarrilean. Gaur egun 450 bazkide ditu eta hasiera-hasieratik Rafael Gomez da bertako presidentea. Bere hitzetan, "Aritzeta abesbatzarekin daukagun hartu-emanaren bitartez, Bergaran zerbait antolatzeko ideia sortu zen eta gure kulturaren ezaugarrietako batzuk erakutsiko ditugu zapatuan. Alde batetik tapeoko gastronomia deritzona, urdaiazpikoa, gazta, ganbak edota txibiak

dastatu ahal izango dira, Cordobako ardo finak eta Malagako moskatelak ere bai eta, bestalde, gure abesbatzak eta dantza taldeak ere parte hartuko dute. Bergaran Cordoba aldeko jatorria duten andaluziar asko dago eta gustatuko litzazuke bihar-ko jaiak aurrerantzean ere jarraipena izatea".

Plazako ekitaldien ondoren, 12:30etan, Udal Musika Bandaren kontzertua izango da Udal Pilotalekuan. Kontzertuaren amaieran, Al Andalus zentruko taldeekin eta Aritzeta abesbatzarekin batera, Bandak "Salve rociera" izeneko pieza joko du. Esan behar da, Al Andalus zentroa eta Aritzeta elkarlanean ari direla, talde bergararrak Aste Santuan, Cordoba aldean emanaldi batzuk eskaintzeko.



Arrasateko Al Andalus zentroko dantzariak eta kantariak.

IKASTAROAK

► **ICTE**ren "Zaharraren psikopatologia" ikastaroa izango da, azaroaren 2tik 8ra bitartean. Argibide gehiago nahi izanez gero, honako telefonora deitu behar da: 943 77 16 99.

DEIAK

► **Eski eta mendi materialaren azoka txikia** izango da Pol-Polen azaroaren 15etik 21era. Material bilketa azaroaren 2tik 12ra egingo da, astebaruan 19:00etatik 20:30etara.

► **Mendi irteera** Bakio-Jata-Gorlizera azaroaren 14an. Irteera 8etan Frontoitik. Txartelak Pol-Polen.

► **Jubilatuaren kultur hamabostaldia**ren amaiera ekitaldia bihar, zapatua, 12:00etan Novedadesen.



DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA



GOXO-TOKI
Itzala 3. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 00

▶ **Elgeako zentral** eolikoa-
ren aurkako mendi martxa
bihar, urriak 30. Partaideak
9:30etan Araotzen bilduko dira.

▶ **HIESari buruzko senti-
bilizazio astea:** martitzenean,
hilak 2, komiki erakusketa
Kultur Etxean. Eguaztenean,
"Pertsona seropositiboen
erregistroa" izenburuko
hitzaldia 18:00etan Irizar
jauregian eta "Que nada nos
separe" bideo emanaldia
19:30etan Kultur Etxean.
Eguenean, 20:00etan filme
emanaldia Novedadesen eta
egukitzean, 21:00etan, irрати
saio berezia Txapa Irratian.

▶ **Itoitzeko solidarioekiko**
elkartasun taldearen bilera
bihar, urriak 30, 16:00etan,
Iruiako Gaztetxean.

OHARRAK

▶ **Agorrosingo igerilekuak**
ixita izango dira astelehenean.

JAIK

▶ **Intsumiso eguna**
domekan Abadiñon.

▶ **Internazionalista eguna**
datorren domekan, hilak 7,
Astigarragan.

KINTADAK

▶ **1962an jaiotako enafaria**
azaroaren 6an Antxonin,
21:00etan. Izen-ematea bertan.

▶ **1947an jaiotako enafaria**
azaroaren 6an Tartufon.
Joan-etorria egiteko autobusa
izango da, 21:00etan azoka
ondoan. Izen-ematea Tartufon,
943 76 35 51 zenbakian.

▶ **1940an jaiotako enafaria**
azaroaren 13an Antxonin.
Izen-ematea eta argibideak:
943 76 45 75 (Begoña) eta
943 76 34 36 (Mari Tere).

▶ **1955ean jaiotako enafa-
ria** azaroaren 13an Azpeitxi
jartetxean. Izen-ematea (2.000
pezeta aurreratuz) Frontoiko
tabernan edo Azpeitxin.

▶ **1945an jaiotako enafaria**
azaroaren 13an Torrekua
erretegian. Izen-ematea (1.000
pezeta aurreratuta) bertan.

▶ **1959an jaiotako enafaria**
azaroaren 20an Antxonin
jartetxean. Izen-ematea bertan.

▶ **1972an jaiotako enafaria**
azaroaren 20an. Izen-ematea
Eusebio II tabernan
(1.000 pezeta aurreratuz).

▶ **1946an jaiotako enafaria**
azaroaren 27an Tartufo jartetxe-
an. Joan-etorria egiteko auto-
busa izango da. Izen ematea
Tartufon (943 76 35 51).

▶ **1927an jaiotako enafa-
eguna** azaroaren 28an. Santa
Marinan meza izango da
13:00etan eta 14:30etan
Antxonin jartetxean. Izen-ematea
Antxonin (2.000 pezeta
aurreratuz) azaroaren 24ra
arte zabalik.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades Locos en Alabama

Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen
eguna: 19:30.

Un papá genial

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 17:00.

Finales de agosto, principios de septiembre

Eguena, Forum Cinematographe:
20:00 (doan).

ARRASATE. Alai zinema

El amor apesta

Eguakitza: 22:00.

Eyes wide shut

Zapatua: 19:00, 22:00.

Domeka: 19:00, 22:00.

Astelehena: 19:00, 22:00.

Martitzena: 19:00, 22:00.

Tarzan

Zapatu, domeka eta

astelehena: 17:00.

EIBAR. Unzaga

Una terapia peligrosa

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen

eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

El sueño de una noche de verano

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.

Astelehena: 17:00, 19:30, 22:30.

Martitzena, ikuslearen

eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

La novena puerta (aurretik Amor de madre laburmetraia emango da).

Zapatua: 22:30.

Domeka: 22:30.

Astelehena: 20:00.

LOCOS EN ALABAMA

Zuzendaria: Antonio Banderas.

Aktoreak: Melanie Griffith,

Lucas Black, David Morse.

≥ 13 URTE

Antonio Banderasek zuzen-
dutako lehen filme honek era
guztietako kritikak jaso ditu.
1965.eko Alabaman girotuta,
bertako arrazakeria arazoak
eta emakumeen egoeraren in-
guruko salaketa egiten da. *Lu-
cillek* (Melanie Griffith) Holly-
woodera alde egin eta telebis-
tako izar bihurtu nahiko du...

UN PAPA GENIAL

Zuzendaria: Dennis Dugan. **Ak-
toreak:** Adam Sandler, Jey Lau-
ren Adams. **ADIN GUZTIAK**

Sonny zuzenbide ikasketak
burutu dituen 32 urteko gaz-
tea da baina ez du nahi bere
gain inolako erantzunkizunik.
Bere neskalagunarekin ezta-
baida gogorra izan ondoren,
Julian izeneko haurra adopta-
tuko dute, *Sonny*ren bitzitan
sekulako aldaketak eraginez.

FINALES DE AGOSTO...

Zuzendaria: Oliver Assayas.

Aktoreak: Mathieu Amalric,

Jeanne Balibar, François Cluzet.

≥ 18 URTE

Gabriel eta *Jenny* banandu
ondoren, abuztutik hurrengo
urteko irailera bitartean, biek
bizi izan dutenaren kronika
kontakten zaigu. Jean Baliba-
rrek aktore onenaren saria ja-
so zuen iaz Donostiako Zine-
maldian filme honi esker. Ja-
torrizko bertsioan, gaztelera-
zko azpitituluekin. Emanaldia
doanekoa izango da.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Joseba Arregi EAJko parlamentariak "Gatazkak pakean bizi" izenburuko hitzaldia eman zuen martitzenean Miguel Altuna institutuan, jubilatuen kultur hamabostaldiko ekitaldien barruan. Politikari andoaindarrak ez zuen pil-pilean dauden politikako gaiak komentatzerik nahi izan eta gatazkaren inguruko erreflesioa planteatu zien aretoa betetzen zuten entzuleei.

G. Pakea hitzaz zer ulertu behar dugu?


E. Pakea hitzarekin inflazio moduko bat gertatu da. Hainbeste erabiltzen dugunez, badirudi denok argi eta garbi dakigula zer esan nahi duen. Hala ere, ez dut uste behar beste denborarik pasatzen dugunik azertzen pakea hitzaren benetako esanahia. Niretzat ez du esan nahi, ezta inondik inora ere, egoera utopiko bat, egoera paradisiako bat, gatazkarik gabeko egoera bat. Beldur naiz gure artean pakea ez ote dagoen gehiegi mitifikatuta eta pakearen beste ulermen bat guztiz diferentea eduki beharra dagoela iruditzen zait. Pakeak ez du suposatzen gatazka guztiak gainditzea, aldeantzikoa baizik; gatazkek egon badaudela errekonozitu beharra daukagu eta, horiek ezabatu eta desagertarazi beharrean, jakin zer nolako mekanismoak behar ditugun gatazka horiekin bizi ahal izateko.

G. Pakea lortzea ezinezkoa al da?

E. Pakea lortu, ez da lortzen, pakea bizi egiten da, eguneroko bizitzan eta konfliktoetan, gatazken barruan. Pakea lortzeko gatazkek gainditu behar direla uste dugu baina ez da horrela, gatazkek beharrezko-

JOSEBA ARREGI
EAJko parlamentarioa

"Beldur naiz gure artean pakea ez ote dagoen gehiegi mitifikatuta"



Joseba Arregi hizlari izan genuen martitzenean Miguel Altuna institutuan.

ak ditugu, gure izaeraren barruan daude eta egin behar duguna zera da; gatazkarekin bizitzen ikasi eta elkarrekin bizi ahal izateko mekanismoak garatu, hau da, demokrazian bizitzen diren arauak errespetatzea.

G. Gatazkak biolentzia ere ekartzen du batzuetan.

E. Niretako oso inportantea da mekanismo ho-

rien azpian egon behar duen ideia nagusia: jakitea gizakiarekin lotuta dauden gauza guztiak mugatuak direla. Gure planteamendua gure proiektu politikoa, gure identitatea, gure hizkuntza, denak (gureak eta besteak) mugatuak dira. Konfliktoetan pakean bizitzea ezinezkoa bihurtzen da horietakoren bat absolutu bihurtzen denean eta historia aztertzea besterik ez dago egia absolutoen izenarekin egindako astakeriez ohartzeko. Orduan, gatazkek biolentzia bihurtzen dira.

Arazoa ez da gatazka arazoa da gatazka biolentzia bihurtzen denean. Gatazka pakean bizi daiteke baina horretarako behar-beharrezkoak dira lehen aipatutako mekanismo horiek garatzea, elkarrekiko errespetua esate baterako. Gure izaera eta gureak diren planteamendua beti mugatuak direla presente izan behar dugu. Mugatuak direla onartzen dugun unetik aurrera, besteentzako errotokia uzten dugu. Nireak guztiz baliozkoak, perfektuak eta absolutoak badira, berriz, besteentzako ez dago tokirik eta horrelako ideiak arriskutsuak dira, gizakiaren izaera menperatu eta zanpatu egiten dutelako.

G. Euskal Herrian behar bezala bizi ditugu gatazka egoerak?

E. Gizartearen barruan gatazka nahiko modu onetan bizi da; baina puntu batean balore bat edo beste dagozkion mugetatik atara eta absolutu bezala jartzen denean, orduan, gatazka horiek biolentzia bihurtzen dira. Planteamendu horiek bere mugen barruan errekonozitu beharra dago. Bere mugetan daudenean gatazkek egon badaude baina modu gizatiar batean bizi daitezke.

"Gizakiarekin lotutako gauzak mugatuak dira. Baloreak absolutu bihurtzen direnean gatazkek biolentzia bihurtzen dira"

.....Berrigara Gida 2000

Bergara eta Antzuolako telefonoen gida prestazen dihardugu.

Ainhoa Altuna (ezkerreko argazkian) eta **Uxue Lazkano** ari dira komertzial lanetan, dendari, ostalari, lantegi eta profesionalen telefonoak jasotzen.

Aurten ere intereseko telefonoak, komertzioenak eta partikularrenak jasoko ditu urte hasieran kaleratuko dugun Berrigara Gida 2000 liburutxoak:

Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak.

lazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzea eskertuko genizuke: **943 76 03 97.**



Berrigara

Victoriano Gallastegi (EAJ) izango da Deba Garaiko Mankomunitateko presidentea legealdi honetan. Deba Garaiko Udal elkartearen gobernu batzordeak joan zen asteko eguaztenean egindako bileran aukeratu zuen Bergarako alkatea presidente kargurako. Xabier Zubizarreta (EH) Arrasateko alkatea izango da presidente ordea eta Jose Antonio Etxeberria (EA) Bergarako hirigintza zinegotziak egingo ditu diruzain lanak.


Deba Garaiko Mankomunitatearen gobernu batzordean eskualdeko zortzi herrietako 16 ordezkari daude. EAJ-EA koalizioak 9 ordezkari ditu, EHk 6 eta azkena Leintz-Gatzagako independentea da.

Presidente aukeraketa ez ei zen erraza izan, EHk bere ordezkaria nahi baitzuen, azken udal hauteskundeetan eskualdean botorik gehien lortu zituen indarra izan zelako. EAJ-EA koalizioak, oster, zinegotzi gehiago lortu zituen eta, ondorioz, Mankomunitateko gobernu batzordean ordezkari gehiago ditu.


Honenbestez, EAJ-EA koalizioaren aldeko botuekin aukeratu zuten Victoriano Gallastegi Mankomunitateko presidentea. Bergarako Udalaren ordezkariak Deba Garaiko Mankomunitatean honako hauek dira: Victo-

Victoriano Gallastegi alkatea Mankomunitateko burua


Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea, presidente ordea



Victoriano Gallastegi (EAJ)
Presidentea



Xabier Zubizarreta (EH)
Presidente ordea



Jose Antonio Etxeberria (EA)
Diruzaina

riano Gallastegi eta Koldo Pereira (EAJ-EA) eta Martin Guridi (EH).

Kargu berria dela eta, alkatearekin izan gara aste

honetan eta zera adierazidio BERRIGARARI: "argi daukat Mankomunitatea udalen zerbitzura egon behar dela eta ez alderantziz, udalek


sortutako elkatea baita. Beraz, udal guztiei afektatzen dizkien gaiak izango dira Mankomunitatearen lan esparruak". Horretaz gain, Bergarako alkateak adierazi digu oraindik zehaztu barik dituela datozen urteotarako lan jardunak, baina argitu digu eskualdeko herri guztietako udalen izenean berba egiteko, udalak ondo informatuta eduki beharko direla.

Aste osoan zehar batzordeak eta hauetako arduradunak aukeratzeko negoziatioetan aritu dira eta berenegun, eguaztenean, egiten bileran aukeratu zirenean batzordeburuak eta batzordeetako kideak.

Batzorde informatzaileetako buruak

Victoriano Gallastegi	EAJ / EA	Presidentea
J. Antonio Etxeberria	EAJ / EA	Hazienda
Jose Mari Loiti	EAJ / EA	Lurralde Antolaketa
Xabier Zubizarreta	EH	Ingurugiroa
Mireia Unamuno	EH	Hiltegia
Angel Mari Iturbe	EAJ / EA	Garapen Ekonomikoa
Patxi Basauri	EAJ / EA	Beste zerbitzu batzuk
Eugenio Otsoa*	Independentea	Industrialdeak

* Aretxabaleta eta Oñatiko industrialdeetan, Mankomunitatearen ordezkaria izango da



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35



San Prudentzioko bidegurutzean zubi berria eraikitzea proposatu du Bergarako Udalak.

San Prudentzio-Epele proiektuari hiru alegazio

GI-627 errepidean, San Prudentzio eta Epele artean egingo diren obrei hiru alegazio aurkeztu dizkio Bergarako Udalak. Zalgumenditik Epelera arteko A-1 autopistako bidesaria doa-koa izatea, proiektuan aurreikusitako San Prudentzioko errotondaren orde-ze beste bat eraikitzea, eta Barrena baserrirako pasabidea proiektuan jasota dagoena baino txikiagoa izatea eska-tu dio Bergarako Udalak Gipuzkoako Diputazioari.

Alegaziook EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botuekin onartu zituen Udaltzaren joan zen egunean. EHko zinegotziak abstenitu egin ziren eta PPkoa ez zen Plenoan izan.

Elorregitik Epelera arteko zatian trafikoa gutxitze-ko, A-1 autopista egiten de-nean Zalgumenditik Epelera arte bidesaririk ez kobratzea (Zalgumendiko lotunean

autopistara sartzen direnei bakarrik) eskatzen du Bergarako Udalak. Bestalde, ez du egoki ikusten San Prudentzioko bidegurutzerako proiektuan aurreikusi den errotonda. Oso bisibilitate urrikoa dela, bertara heltze-ko ezkerrean eta eskumara bihurtzeko pasa behar di-rela eta errotonda eraikitze-ko 32 metroko desmontea egin behar dela dio Berga-rako Udalak. LKS enpresak egindako proiektuan aurrei-kusitako errotondaren orde-z, orain dagoen zubiaren ondoan beste bat eraikitzea eta biribil handiagoa eta erosoagoa egitea proposa-tzen du. Azkenik, Barrena baserrirako lotunea proiektuan jasota dagoena baino txikiagoa eta sinpleagoa izate-a eskatzen du Udalak.

San Prudentzio eta Epele arteko errepidea konpon-tzeko 438 milioi pezeta bi-deratuko dira.

AUTOPISTAK LEHENTASUNA

Botoa azaltzerakoan, bere taldea zergatik abstenitu zen azaldu zuen Jesus Mari Garitano EHko zinegotziak. Gipuzkoako Diputazioak aurkeztutako proiektua oso kaskarra dela eta 400 milioi pezetarekin gauza gutxi egin daitekeela esan zuen. Bestalde, autopistari lehen-tasuna ematen zaionez, gaur egungo errepidean ho-bekuntza txikiak eta txarrak proposatzen direla esan zuen. Elorregiko errotonda eginda ingurugiroari kalte handia egingo zaiola eta errepidea Elorregi auzoaren erdi-erditik pasatzea ez dela soluzio egokia esan zuen. Bestalde, PSE-EEko zinego-tziak, Alvaro Esparzak, esan zuen EHk proiektuarekiko agertutako ezadostasuna ez zela agerian geratu bozke-tan, kontra bozkatu beha-rean abstenitu egin zelako.

Eroskik gauzez egiten dituen zama-lanak

Bideberriko Eros-kin, gauzez batez ere, egiten dituzten karga-deskarga lanek inguru-ko etxeetako bizilagunei sortarazten dizkieten eragozpenak direla eta, Bergarako Udalak idatzi bat bidali dio Eroskiri zama-lanak 22:00etatik aurrera egin ez ditzaten. Une honetan ez dago zama-lanak egiteko or-duari buruzko mugarik trafiko araudiaren alde-tik. Hala ere, Udala trafikoaren udal arautegia egiten ari da une haue-tan eta arautegian zama-lana egiteko ordutegia zehaztuko da.

Bideberriko Consum supermerkatua hornitze-ko egiten diren zama-lanetan, kamioiarekin ma-niobrak egiterakoan, fa-rolak eta zuhaitzak behin baino gehiagotan apurtu dituzte.

Eguren eta Irizar Udalaren ordezkari Eudiman

Joan zen astelehe-neko ohiko Osoko Bil-kuran Euskadiko Ud-al Intsumisoen Mankomunitaterako Bergarako Udalaren ordezkariak aukeratu zituen Udaltzaren Mikel Eguren (EH) eta Kontxi Irizar (EA) izango dira Bergarako Udalaren ordezkariak. Hauek aukeratzeko bozketan, EH eta EA alde agertu ziren eta EAJ abstenitu egin zen. PSE-EE eta PPko ordezkariak ez ziren Plenoan izan.

Berrigara

385 zenbakia.
1999ko urriaren 29a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria:
Eneko Azkarate.

Erredakzioa: Eneko Azkarate,
Edu Mendibil, Monika Belastegi.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.

Publizitatea: Uxue Zabaleta.

Harpidetza: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien,
Maripi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkorobereizbar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodríguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugaldel, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:
Juan Martín Elexpuru, Josu Okina,
Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia:
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanien eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Begarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurritzakako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigara@topagunea.com. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.



BERRIGARAREN OHARRA

Berrigara **GIDA 2000** prestatzen ari garela eta,
honako kasu hauetan zaudeteno **BERRIGARAKO**
943 76 03 97 telefonora deitzea eskertuko genizueke:

- Berrigara GIDA 99an zuen telefonorik **agertzen ez bada** eta 2000.ekoan agertzea nahi baduzue.
- Berrigara GIDA 99an zuen **telefono zenbakia oker** agertzen bada.
- Zuen **telefono zenbakia aldatu** egin baduzue.
- Berrigara GIDA 99an zuen **helbidea oker** agertzen bada.
- Zuen **helbidea aldatu** egin baduzue.
- Berrigara GIDA 99an zuei buruzko beste edozein datu **oker** agertzen bada edo **aldatu** egin nahi baduzue.

Mila esker.


tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



GORKA ETA JON/99 ©

▀ atrebentzia ezpada

Astelehenian Domusantu eguna ospatuko da. Badaukazu ohituraik kanposantura juateko?




Iñaki Urgoitia

Ez naiz juaten, urtian zihar
be ez. Etxekoak juaten dira
normalian baina nik ez
daukat ohituraik.



Begoña Iturralde

Bai, juaten naiz.
Domusantu egunian
sendikuei lorak eruan
eta bisitatxo bat eitteko
ohitturia daukat.



Antonio Elejalde

Ez jat gustatzen neri
kanposantura juatia. Eta
hildakuei lorak eruatia al-
perrikako gastua pentsatzen
jat. Hobe diru hori
behartsuren bati emotia...



Nerea Atorrasagasti

Ahal dotenian bai. Bestela,
urtian ez naiz juaten.
Oinxe hil jat aitxa, apirile-
an, eta jua izan naiz lorei
ura botatzera, besteik ez.



Jose Mari Elorza

Normalian bai, urtero
juaten naiz. Egun horretan
bakarrik ez, urtian zehar
bisittaren bat edo beste
egitten dot kanposantura.



Naiara Polvorosa

Ez, ez naiz kanposantura
juaten egun horretan.
Txikittan joan izan naiz
gurasuekin baiña oin ez.

▀ bai, esan!



Gertaerak salatu edo
txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

TXAKURRAK ZAUNKA EGITEN GAUEAN

E. Martinezek deitu
digu aste honetan, egue-
nean, BERRIGARAKO erre-
dakziora. Eguazten
gauean Bolu inguruan
entzuten ziren txakur-
zaunkengatik haserre bi-
zian zegoen. Esan digu-
nez, ez da txakurrak (ez
bat eta ez bi, txakur asko
baizik) luzaroan eta de-
nak batera zaunka egiten
ibili izan diren lehen al-
dia eta uste du Udalak
nolabaiteko araudi eta
isunak ezarri beharko li-
tuzkeela gai honen ingu-
ruan. Bere hitzetan "ez
dago eskubiderik txaku-
rrokin zerikusirik ez du-
gunok ezin lo hartuta
egoteko, txakurrak noiz
lasaituko zain". Txaku-
rren jabeek ardura askoz
handiagoa izan beharko
luketela dio, gainera.



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

adituen esanetan

Txakurren katarroak

Txakurrak ez tulka hasten direnean, jabeek askotan usate izaten dute eztarrian zerbait, hezurren bat-edo, trabatu egin zaie-la. Hala ere, ez tulak txakurra osasun aldetik ondo ez dagoela iragar-tzen digu behin baino gehiagotan. Sintoma nagusia ez tulka sikua (flemarik gabekoa) iza-tea da, erretzaileek iza-ten dutenaren antzekoa hain zuzen ere. Norma-lean *parainfluenza* ize-neko birusaren bitartez kutsatzen dira txaku-rrak eta lehendabiziko tratamendua antibioti-koekin eta antinflamatorioekin egiten da. Denboraz jokatzuz gero, astebetean txakurra sendatzeko aukera izaten da eta animaliak ez du inolako ondoriorik jasaten.

Sintomak agertu bezain laister, txakurra tratamenduan jartzea komeni da. Denbora batean tratatzeke lagaz gero, konplikatzeko arriskua dago eta orduan bronkitisa edo bronkoneumonia ager daitezke, bakteriak tartean izaten direlako. Horrelakoetan sukarra eta



ROMAN LAZPIUR

Albaitaria

"Parainfluenza birusaren bitartez kutsatzen dira txakurrak normalean, elkarrekin jolastean adibidez"

mokoak izaten dituzte txakurrek eta animo aldetik ere tristeago egoten dira. Kasu honetan tratamendua konplikatuagoa da eta batzuetan bi hilabetez ere luzatzen da. Neumonia eta trakeobronkitis kasuak ere ezagutzen dira zenbaitetan. Behar den momentuan ez tratatze-agatik laringitis eta bronkitis kronikoak izaten dira txakurrek jasaten dituzten beste ondorioetako batzuk, katarroari ez zaiolako eman duen garrantzia.

Txakurren katarro kasu gehienak udazkena eta udaberria bitartean ematen dira eta, beraz, nahiko ohizkoa izaten da urte sasoi honetan. Dena den, kontuz jokatzuz gero ez dago larritu beharrik. Esan bezala, ez tularekin batera txakurrek botatzen dituzten partikula birikoak izaten dira kontajioaren eragileak, animaliak elkarrekin jolastean ari direla esate baterako. Gure gripearen antzeko prozesua du eta, beraz, kontuz ibili behar gara gure animalia ez tul sikua duten txakurrekin elkartzean.<



Txakurren katarro kasu gehienak udazkena eta udaberria bitartean ematen dira.

bergarako gordailutik

BERGARAKO ORGANOAk

Imanol Sorondo

Orain gutxi argitaratu dute Gipuzkoako organoei buruz egindako liburu bat. Bertan idazten dira, beste askoren artean, Bergarakoei dagozkien azalpenak. BERRIGARAN ere eman ziren zer-nolakoak ondo baino hobeto Iñigo Alberdiren eskutik. Nire aldetik xehetasun bat edo beste gehitu nahi nituzke. Lehendabizi, azpimarratu Luis Mugarrenek idatzitua zuena Angiozarkoari buruz, 1487. urtean bazegoela, alegia.



Kaleko elizei buruz aurkitu daitekeen azalpen zaharrena San Pedrokoa da: bazegoen 1518. urtean. Calahorran organo honetaz eskaini zen txosten batean Gotzaindegi osoko piezarik onena eta ederrena zela esaten zen. Gero, Ordiziako Bizente Alemanek beste bat egin zuen 1584. urtean. Ondoren, 1669. ean, zaharberritzea erabaki zuten, eta lan horretarako oso maisu egokia zen Etxeberriatar Joseph frantziskotarra aukeratu zuten. Zura kontuan hartu gabe, 1.550 dukatetan hizketatu ziren. Urte batzuk beranduago maisu honek organo hori probintzi honetako onena zela adierazi zuen idatzi batean. Oraindik, 1733. urtean berritu bat eman zioten eta eliztarrak 5.654 errealeta 7 marabedi eman zituzten konpostetarako. Azken hau izango zen Valvanerako monasteriora eramant zuten organo barrokoa.

Santamainako azalpen zaharrena 1594koa da: ez da esaten organoa bazegoenik, baina elizako abade organista aipatzen da.<

Gazteak eta bakea

Jubilatuen kultur hamabostaldiaren barruan antolatutako eskolarteko lehiaketaren sari banaketa egin zen aurreko egualkitzean Novedades aretoan. **"Pakea ekarri gatazkara"** lelopean egindako idazlan lehiaketan Bergarako **430 ikaslek** hartu dute parte. Antolatzaileak oso pozik azaldu dira lortutako partaidetzarekin eta gaztetxoek erakutsitako mailarekin. Epaimahaiak, ikastetxe bakoitzeko lanik onenak aztertu ondoren, ondoko lanak saritzea erabaki zuen: lehen hezkuntzan, "Pueblos en paz" **-Gorka Loiti, Mikel Etxaniz, Imanol Cordobilla eta Aimar Agirre-**, "Telebista errudun" **-Paulo Bikuña-** eta "Mikelen historia"



-Ion Pueyo-, DBHn (12-13 urteko ikasleak), berriz, "Tres razones para convivir en este mundo" **-Itziar Arana, Ane Coranti eta Patrizia Gonzalez-** eta "Txakurra zaunka" **-Itsaso Arraigo-** izan ziren saritutako lanak. Lehen hezkuntzako sarituek

20.000 pezetako sari bana eskuratu zuten eta bigarrenenak 25.000koa. **Orfeoi Gazteak** ere parte hartu zuen ostiraleko sari banaketan. Argazkian, saritutako ikasleak San Joxepe jubilatuen elkarterko ordezkariekin. Zorionak!!

Margolanak plazan



Zapatu goizean **Bedelkarrek** antolatutako margo erakusketa ikusgai egon zen Plazan. **Arte lanak** herritarrei burbiltzeko asmoz, **Bedelkarrekoek Mari Paz Alustiza, Juanjo Altuna, Edurne Eraña eta Marino Gonzalezen ikasleen lanak** zintzilikatu zituzten eta zapatu eguerdian Plazan bildutakoek margolarien harrobia primeran datorrela baieztatu abal izan zuten.

Orain dela 120 milioi urte

Interes handia piztu du Kultur Etxean jarritako **"Euskal Herria eta dinosauruak"** izenburuko erakusketak. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bergarar ikasleak ere etorri dira erakusketa ikustera eta **Gema Hoyos** erakusketako gidariak nahi beste azalpen eman die.

Erakusketan orain dela **120 milioi urte** dinosauruek gure artean utzitako aztarnak ikus daitezke, fosilak eta hezurak tartean. Ikusleek **Baryonix** (dinosauru arrantzalea) edota gazelen pareko abiadura zuen **Hysilophodon** dinosauruari buruzko argibideak jaso ahal izango dute, jarritako panelak eta ikusgai dagoen bideoari esker. Erakusketatik azken eguna domeka izango da.



B e r g a r a k o OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman)**. Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak)**. 943 76 43 29, mobila: 609 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala)**. 943 76 43 29, mobila: 608 77 17 32
- **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak)**. Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika)**. Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 608 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel**. Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BASURRI**
- **MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor**. Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL**. Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto**. Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
- **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia**. Artekale 1, 1-B. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari**. Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco**. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 78
- **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA**. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier**. Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Iruñe**. Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier**. Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
- **ETXEBERRIA Ana**. Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel**. Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA**. Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBER**
- Eduarne**. Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu**. Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo**. San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

Beheko estaziñua

Betirako agurra eztabaida giroan emango zaio



Ibargarai kalean, 20. Area bezala ezagutzen den gunean, egiten diharduten etxe berriak eta urbanizazio lanak direla eta, Beheko Estazioko etxea, orain autobus geltoki moduan erabiltzen dena, bota egingo dute aurki. Orain, ordea, botatzearen kontrako ahotsak entzun dira. Askorentzat, beranduegi.

Etxea botatzeko egitasmoa aspaldi-koa da. Victoriano Gallastegi alkateak Berrigarari esan dioenez, 1976. urteko Plan Orokorrean jasotzen zen. Inguruaren ordenazioari buruz, ondoren egin diren plan guztietan ere jasota geratu da etxea botatzea. "1995. urtean Arau Subsidiarioak eztabaidatu zirenean Kapiroixok eta HBk alegazioak aurkeztu zituzten etxea dagoenetan lagatzeko, baina ez zen onartu, ondoan autobus geltoki berria eraikitzeke asmoa zegoelako. 1996. urtean Arau Subsidiarioak eta 1997. ean Area 20ko plan berezia onartu ziren eta inork ez zuen ezer esan. Orain, etxea botatzeaz dagoenean eskaerokin etortzea ez zait bidetzkoa iruditzen" esan digu alkateak.

MARCIAL MORENOREN IDATZIA

Garai batean Vasco-Navarroko langilea izan zen Marcial Moreno bergararrak


orain dela bi aste komunikabide batean idatzitako gutun batek altzarazi ditu etxea botatzearen kontra daudenen ahotsak. Besteak beste, ingurua urbanizatu, etxea birgaitu eta autobus geltokia modernizatzeko lanak egin behar-ko lituzketela adierazten zien Marcial Morenok Bergarako udal agintariei. Bestalde, Bergarako herritarrek kontu honetan erakutsitako ardurarik eza salatzen zuten.

Hitz horiek pizgarriak izan ziren Deba Garaiko Ondarea babesteko Kapiroixok elkartearentzat. Hurrengo astean BERRIGARARA bidalitako idatzi batean, indultua eskatzen zuten Beheko Estazioarentzat. "Vasco Navarro trenbideko geltokia botatzen badute Bergarako historiaren zati bat desegingo duen astakeria burutuko da" irakur zitekeen idazkian. Kapiroixok, Azpeitia, Donostia eta Lizarrako ferrokarrilaren aldeko elkar-

teekin batera, zapatuan San Martin plazan biltzeko deia zabaldu zuen. Kontzentrazioan, besteak beste, Reyes Korkostegi Oñatiko alkate izandakoa, Marcial Moreno bera eta gaur egun beheko estazioan lan egiten duten Pesa autobus enpresako langileek hartu zuten parte.

PASOTA SAMARRAK

Reyes Korkostegi Oñatiko alkate zen 1967. urtean Mekolaldetik Gasteizera zihoan trenak kendu zutenean. Bere garaian trenak mantentzearen alde borrokatu zuela aitortu dio BERRIGARARI. "Ondarea babesteko ahalegin berezia egin izan dut beti, eta pena handia ematen diit garai bateko historiaren erakusle den etxea kontserbatzeko herritarren eta agintarien artean sentsibilitaterik ez egoteak" esan digu. "Hirigintza planak egiten direnean ondarea gordetzeko



“Hirigintza planak egiten direnean ondarea gordetzeko ahaleginak egin behar dira. Dirua ez da dena, sentsibiltatea ere behar da” REYES KORKOSTEGI

ahaleginak egin behar dira. Dirua eta teknikoan iritzia ez dira dena, sentsibiltatea ere behar da. Kontu honek min handia ematen dit”. Korkostegiren iritziz, jendea gaur egun oso ondo bizi da eta ez du ondarearekiko kezkarik, “pasota bihurtu gara” diosku.

katzeko sinatu zutenei ea prest dauden euren poltsikotik dirua jartzeko. Bestalde, eskakizunak aintzakotzat hartuko bagenitu, Ibargarai alde hori hiru bat urtez geldi egon beharko litzateke. Hirigintza aldetik ez da onargarria”.

1.700 SINADURA

Joan zen astean etxea gordetzearen aldeko 1.700 sinadura batu zituen Kapirixok. Firma horiek Bergarako alkateari eman zizkioten joan zen zapatuan Udaletxean egindako bileran. Zapatu honetan berriaz bilduko dira. Ibargarai alde horretan egiten ari diren etxeen sustatzailerik eta Udalak elkarri

orubeak trukatzeko eskaria egin diote Kapirixokoek Udalari. Horretaz gain, Eusko Jaurlaritzara txosten bat bidali dute XIX. mendeko arkitektura industrialaren erakusle argia izanda, Beheko Estazioko etxeari ondare historiko izendapena eman diezaioten.

Victoriano Gallastegi Bergarako alkatearen iritziz beranduegi da orain zalapartaka aritzeko. “Zer egingo dugu, Arau Subsidiarioak aldatu edo inguru horretako garapen plana aldatu? Lurrak birkalifikatu? Eta nork ordainduko du hori guztia egiteak suposatzen duen 400 milioi pezeta inguruak? Herriak? Galde diezaiotela etxea gordetzea es-



Kapirixon eta ferrokarrilaren aldeko elkarteetan, ordea, badaude Udalarentzat 400 milioi pezeta ez dela gehiegi uste dutenak. Interesa eta sentsibiltatearekin, arazoa konpon daitekeela uste dute eta horrela jakinarazi zioten alkateari joan zen astean egindako bileran.

Kapirixokoek gogo handiz ekin diote Beheko Estazioa gordetzeko ekimenei. “Uste genuen lau zoro baino ez ginela, baina Reyes Korkostegi etorri zaigu, Marcial Morenoren gutuna ere hor dago eta, bestalde, ferrokarrilaren aldeko Azpeitia, Donostia eta Lizarrako elkarteetako ordezkariak ere gaitzeko ardura agertu dute. Aste honetan bertan, bestalde, ondare industrial babestearen alde lan egiten duen Bil-

HOGEEKO HAMARKADAKO ETXEA

Gatzaga-Arrasate trenbidea eraikitzeari 1914. urtean ekin zitzaion. Azkenean Mekolalderaino egin zuten (San Prudentzion Oñatirako adarra eraikiz), eta 1919an bukatu zuten. Bergarako udalerriri dagokionez, San Prudentzian, Labegaraietan, *Ver-gara Villa* edo Beheko Estazioan, eta Mekolalden kokatzen ziren geltokiak. Ikatz lokomotoreak erabili ziren, 1938an sare elektrifikatua inauguratu arte.

60ko hamarkadan krisialdia etorri zen trenarentzat. Izugarri ugaldtu ziren autoak eta tren bidaiarien kopuruak behera egin zuten. Ez hori bakarrik, trenbidearen ordez, errepidea nagusi, Orbegozo, Etxeberria edota Altos Hornos enpresek kamioi bidezko garraioari ekin zioten. Arrazoi batzuk edo beste batzuk tarteko, trenak ez zuten pasatu 70eko hamarkadaren muga.

1967. urteko abenduaren 31n, urteko azken egunean, 20:08an, atera zen Beheko Estaziotik azken tren. Beranduago, 21:23etan, Gasteizetik zetorrena heldu zen Bergarara. 1968. urtetik aurrera ez zen trenik pasatu beheko trenbidetik; goikoa beranduago itxi zuten. Beheko Estazioko etxea itxita izan zen urteetan. 80ko hamarkadan Ertzaintzaren komisaldegia izan zen eta azken urteotan, autobus geltoki bezala erabili da.



1920. urtearen inguruan eraikitako tren geltoki zaharra mendea bukatzen denerako botatzekotan dira. Dagoenetan lagatzearen aldekoak badira, ordea, eta joan zen asteburuan firma bilketa egin zuen San Martin plazan. Berandu dabilzan arren, herritarren eta agintarien sentsibilizazioa piztu nahi dute.

boko elkarte bateko kideak gurekin harremanetan jarri dira eta antolatzen ditugun ekimenak bultzatzeko prest agertu dira" esan dio BERRIGARARI Urdin Elortzak Kapirixoko dinamizatzailerak.

IBILALDIA DATORREN ASTEAN

Zapatuan berriz ere alkatearekin biltzekoak dira Kapirixokoak. Ondoren, datorren asterako, beste ekimen batzuk bultzatu nahi dituzte. Azaroaren 7rako, esaterako, ibilaldia antolatuko dute. "Goiko Estazioan hasi eta Mekolaldetik

"Arau Subsidiarioak aldatu? Nork ordainduko du hori guztia egiteak eskatzen dituen 400 milioi pezeta inguruak? Herriak?" VICTORIANO GALLASTEGI

pasatuz Beheko Estazioan amaitu nahi dugu eta jai giroan egingo dugu, trikitalari eta abarrekin. Horretaz gain, Beheko Estazioan argazki erakusketa antolatuko dugu, trenaren ingurukoa" diosku Urdin Elortzak. Azpeitiko trenaren mu-

seoan dagoen tren bagoia ere ekarri nahi dute, baina hori zailagoa izango da.

Herritarren artean zabaldua dagoen komentarioa da zeozer egiteko beranduegi ez ote den... Ikusi behar.<

Loramendi kirolak

e-mail-a: loramen@teletel.es

LOREAK MENDIAN **Arrasate**

Jon Lazkano mendizale bergararra datorren abenduan, Iñurtegitarrekin batera, Patagoniara egingo duen espedizioa prestatzen ari da egunotan. Mauritaniara egindako bidaiak batetik itzuli berria da eta TVE-ko "Al filo de lo imposible" saiorako, udaberria eta uda bitartean grabatutako espedizioari buruz hitzegiteko aukera izan dugu berarekin.

Gogoratuko duzue, Jose Carlos Tamayo sestaoarra eta Felix eta Alberto Iñurtegi anaiekin batera, apirilcan Grezia aldera abiatu zen Jon, "Al filo de lo imposible" saiorako Alexandro Handiak bere garaian egindako ibilbidea errepikatu nahirik. Alexandro Handiak (K.a. 356-323) Asia Txikia eta Egipto konkistatu bazituen ere, gure mendizaleek Grezia, Iran eta Pakistaneko hainbat gailur zapaltzea lortu dute.

Lehenbizi, Greziako Olimpoko gailurra (2.917 m.) egin zuten eta, horrez gain, intereseko hainbat tokitan ere irudiak grabatu zituzten. Kirol arloaz gain, espedizioak bidaiaren inguruko alderdi kulturalak ere jasotzeko helburua zuen. Teknikoekin batera, zazpi lagun ziren espedizioan. Irudiak zine formatoan gra-



Jon Lazkano, Iran eta Pakistanetik bueltan

Abenduan Patagoniara joango da Iñurtegitarrekin Paineiko Dorrea igotzera

Iñurtegitarrak eta Tamayorekin batera, Grezian, Iranen eta Pakistanen hiru hilabate eman ditu Jon Lazkanok, "Al filo de lo imposible" telebista saiorako dokumental bat grabatzen.


batu zituzten. Jonek azaltzen digunez, "garestiagoa izan arren, askoz ere kalitate handiagoa dauka. Normalean bi kamara erooten ditugu, handia (12 bat kg. pisatzen duena), teknikoak ez den terrenoetan erabiltzeko aproposa eta txikia (4 bat kg.koa) eskalatzen ari garela erabiltzeko. Bideo digitalak ere erabiltzen ditugu beharrezkoa denean".

IRAN ETA PAKISTAN

Greziatik Iranerako bidaiak abioiez egin zuten, hasierako asmoa karreteraz egitea bazen ere. Kurdistaneko egoera zela eta, azkenean uko egin behar izan zioten asmo horri. Iranen Demavend sumendia (5.645 m.), Trono de Salomon (4.640) eta Alan Khu (4.850 m.) mendiak egin zituzten, azken honetako gailurreraino iristerik izan ez zuten arren. Iranen hotz handia jasan zuten eta bertako haize hotzak eskuko atzamarrak sorgortu zizkion Joni hilabete baterako. Iranen Qom, Esfahan eta Pertsepolis (Alexandro Handiak erre zuen hiria) toki historikoak bisitatu zituen espedizioak maiatzean.

Iranetik Pakistanera joateko autobusa hartu eta, Alexandrok egin zuen moduan, Indus ibaiari jarraituz, Islamabad Pakistaneko hiri-

burura heldu ziren. Lehen helburua Izenik gabeko dorrea (6.251) zen. Jonek hitzetan, "kanpo basean hiru egun eman genituen, 4.000 metrora, eta gurea zen espedizio bakarra. Hiru aste eman genituen gailurreraino iristeko eta astebete kenduta, giro ona egin zigun. Hala ere, hotz handia egiten zuen". Jon egonda zegoen orain zazpi urte Izenik gabeko dorrean; orduan Dorre Handia deiturikoa igotzen bazuen, honako honetan Dorre Txikira joan ziren. "Igoeran, tamalez, ez genuen gu nahi beste irudi grabatzerik izan". Ekainaren 26an iritsi ziren gailurreraino eta hurrengo jomuga Nanga Parbat (8.125 m.), espediziozko mendirik altuena izan zen. Aurretik atsedean egon bazuk hartu zituzten grabazio taldea aldatu beharra zegoelako.



ERRESKATE LANAK

Nanga Parbatego kanpo basera heldu bezain laister gauzak erabat okertu zitzaizkien. Kolonbian bizi zen aleman batek istripua izan zuen 7.000 metrora. Jonen arabera, "kanpo basean

ziren Japoneko eta Koreako espedizioak ez zeuden prest zauritutako mendizalea jaisteko. Oso zauri larriak zituen eta erreskate lana altura horretan oso zaila zen. Dena den, guk egiten ez bagenuen, inork ez zuen

egingo. Eguerdian kanpo basera heldu eta gauerako 2. kanpo basean geunden, 6.000 metrora, sekulako esfortzua eginez. Zauritutakoa hirugarren kanpo basetik gertu zegoen eta hurrengo egunean lehen kanpo basera jaisi genuen. Lehertuta bukatu genuen". Tamayoren bitartez jasotako azken albisteen arabera, badirudi zauritutakoaren egoerak hobera egin duela azken asteetan.

Ondoren, edurra medio, bigarren kanpo basetik atzera egin behar izan zuen espedizioak, baina hirugarren tentaldian gailurrera heltzea lortu zuten, uztailaren 29an hain zuzen. Jonek ez zuen bertan egoterik izan, abuztuaren hasieran trekking bat gidatzeko hitza emanda zuelako. Jonek Banoa bidaia ajentzian trekkingak eta bidaia turistikoak gidatzen ditu eta irailan Iranen izan da lanean. Aste honetan, berriz, Mauritania-tik etorri berria da.

Abenduaren hasieran Jon Patagoniara joango da Inurrategitarrekin batera, Paineke Torre Central ize-nekoa igotzeko asmoz. Hasiera batean 45 egun inguru emango dituzte bertan.



Behobia-Txiki jendetsua

Behobia-Donostia lasterketa gertatzen ari diren 80 korrikalari inguruk parte hartu zuten joan zen zapatuan jokaturako Behobia Txiki lasterketaren laugarren edizioan. Umore onean eta sasoi hobean, partaideek Bergara eta Soraluze bitarteko joan-etorria bete zuten, 15 kilometro guztira. Ondorengo bazkarian 35 lagun elkartu ziren Iraho jatetxean. Bestalde, azaroaren 14ko Behobia-Donostian parte hartu nahi dutenek Lazkano oinetako dendan edo Bolintxo kirol dendan eman dezakete izena.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Eibartarrak

Infantilak
Zapatua. 16:00. Ipintza

Bergara-Aurreira Vitoria

Neskak
Zapatua. 17:30. Ipintza

Bergara-Urola

Ohorezko mailako kadeteak
Domeka. 11:00. Ipintza

ESKUBALOIA

Bergara-Urola

Jubenil neskak
Zapatua. 16:30. Kiroldegia

SASKIBALOIA

Bergara-Mundarro

Senior neskak
Zapatua. 16:00
Mariaren Lagundia

Bergara-Calahorra

Senior mutilak
Zapatua. 19:00
Kiroldegia

Bergara-Iraurgi

Junior mutilak
Domeka. 12:15
Mariaren lagundia

PILOTA

PROFESIONALAK

Berasaluze VIII-Imaz

Alustiza-Salaberria

(biak 4 1/2ko txapelketakoak)

Koka-Arretxe /

Agirre-Armendariz

Zapatua. 17:30
Udal Pilotalekua

KLUBEN ARTEKO

TXAPELKETA

Bergara-Lazkao

Lehen mailako seniorrak (banaka)
Eguakitza. 20:00
Udal Pilotalekua

CAFE BAQUE TXAPELKETA

Moro-Dominguez

Lopez-Lizarralde

Aranburu (Bergara)-Igartua

Zubikarai-Jauregi

Martitzena. 19:30
Udal Pilotalekua



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUA BARRUAN

09:30: Amilotx-Mongatxurak
10:30: Urrutxurtu-Patatus
11:30: Azpeitxi Jatetxea-Moskis
12:30: Vacalouras-Buya

Urrutxurtu
Azpeitxi
Vacalouras
Moskis

ZAPATUAN KANPOAN

16:30: Eri Sirimiri-La Juve
17:30: Artusamak-Xurruapak

Artusamak
La Juve

DOMEKAN BARRUAN

09:30: Guadalest-Txipiron
10:30: Agiñazpi-Shaktale
11:30: Irubide Jatetxea-P. Bergara

Agiñazpi
P. Bergara
Shaktale

ASTELEHENEAN BARRUAN

10:30: Uve Bikoitza-Agiñazpi
11:30: Sirimiri Eri-Irubide Jatetxea
12:30: Pagomendi-Ari Ari
16:00: Pinturas Bergara-Mo(ko)lotov
17:00: Bayer-Tom Cat Argandolas
18:00: Komando Piperrak-Canalejas
19:00: Shaktale-Torrekua
20:00: La Juve-Etengabe

Sirimiri Eri
Pagomendi
Irubide
Bayer
K. Piperrak
Tom Cat
Etengabe
Torrekua

EMAITZAK

A MULTZOA

Mo(ko)lotov-Pagomendi	1-5
Irubide Jatetxea-Azpeitxi Jatetxea	9-2
Etengabe-Pinturas Bergara	5-3
Moskis-La Juve	5-1

B MULTZOA

Bildurbarek Opel Lam-Amilotx	9-2
Patatus-Patxaran Team	1-3
Mongatxurak-Bayer	1-1
Tom Cat Argandolas-Urrutxurtu	2-3
Amozkibar-Agirrebeña Jatetxea	10-3

C MULTZOA

Buya-Shaktale	3-8
Ortzi-Vacalouras	4-2
Ion Autoak-Uve Bikoitza	2-3
Torrekua-A Ze Flaxa Etxagi	2-6

D MULTZOA

Aterpe-Komando Piperrak	5-1
Xurruapak-Ufala	9-3
Txipiron-Artusamak	1-2
Errotagain-FAC	2-0

GORA ETA BEHERA



Aterpe eta Artusamak

D multzoan faroltxo gorrien arteko neurketa jokatu zen zapatuan, Aterpe eta Komando Piperrak taldeen artean. Lehenengoak nagusitu ziren, argi eta garbi gainera: 5-1. Bestalde, jokatu dituen bost partiduak irabazi dituen Artusamak taldea ere nabarmendu behar da.



Komando Piperrak

D multzoko sailkapenaren azken postuan aurkitzen da eta faroltxo gorrien arteko derbyan bost gol jaso zituen, kasarren artean kasarkarena dela erakutsiz. Animo, hala ere, garrantzitsuena parte hartzea baita.

ARGI! Nortasan agiri barik, ezin jokatu

Aste honetatik aurrera, jokalarri guztiak erakutsi beharko dute nortasan agiria eta ez dutenek ezin izango dute jokatu. Horregatik, nortasan agiria oraindik aurkeztu ez dutenei, lehenbailehen entregatzea eskatu die Antolaketa Batzordeak.

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	15	5
2. Azpeitxi Jatetxea	12	5
3. Moskis	9	5
4. Ari Ari	7	4
5. Mo(ko)lotov	7	5
6. Irubide Jatetxea	6	4
7. Etengabe	6	5
8. Sirimiri Eri	3	3
9. Pinturas Bergara	0	4
10. La Juve	0	4

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	15	5
2. Shaktale	10	4
3. Uve Bikoitza	10	5
4. Ortzi	9	5
5. Ion Autoak	6	4
6. Buya	6	5
7. Vacalouras	6	5
8. Agiñazpi	3	3
9. Soropotroak	0	3
10. Torrekua	0	5


B multzoa

	P	J
1. Urrutxurtu	10	5
2. Mongatxurak	8	4
3. Patxaran Team	7	5
4. Amozkibar	6	3
5. Amilotx	6	4
6. Tom Cat Argandolas	6	4
7. Bildurbarek Opel Lam	6	5
8. Agirrebeña Jatetxea	6	5
9. Bayer	5	4
10. Patatus	0	5

D multzoa

	P	J
1. Errotagain	15	5
2. Artusamak	15	5
3. Xurruapak	10	5
4. Guadalest	9	4
5. Bar Canalejas	6	4
6. FAC	5	5
7. Txipiron	4	5
8. Ufala	3	5
9. Aterpe	3	5
10. Komando Piperrak	0	5

■ mahoneroak



FELIX ARANBURU
Aldageletako arduraduna

Bergarak ez zuen gaitzesarik merezi izan zapatuan. Realaren aurka jokatuak partiduan. Gure taldeak partidu ona egin zuen nire ustez, lehen zatian batez ere, eta donostiarrei partidu amaieran Amabirgina ageruz zizaiela esango nuke. Partidu borrokatua izan zen eta ez dakit gure jokalaririk ez ote ziren arbitroarekin zertxobait beldurtu bigarren zatian. Egia esateko, etxeko partiduetan epaiketa kasurak sufritzen ari gara.

Dena dela, ez nuen uste Bergarak zapatuan galduko zuenik. Realak ez zuen beste munduko ezer egin eta izan zituzten hiru aukeretatik bi gol egin zituzten. Kaltetatea badaukate edozein jokalditan arriskua sortzeko baina zapatuan zortea ere euren alde izan zuten.

Berrigara Saria

Realaren kontrako partiduan hauek nabarmendu ditugu:


Asier Rodriguez ... 3 puntu
Luis Blanco ... 2 puntu
Jokin Mendiartz ... 1 puntu

Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

PISZINETAKO TABERNA

Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak

Boni Laskurain z/g
Tf. 943 76 53 55



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 ZUBILLAGA z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

FRONTOI



TABERNA

Fraskozuri z/g. 943 76 05 09

kronika: areto futboleko seniorrak

Garaipena azken minutuan

Bergara 3

Zaldibi 2

1999-X-22. 22:30

KIROLDEGIA

Bergara: Alberto Gonzalez, Aitor Anton, Gorka Aiestaran, Ibon Agirre, Luis Mari Cambro-nero -hasierako boskotea-, Iban Idigoras, Peli Iturrikastillo, Gorka Larrañaga, Aitor Vicente eta Mikel Elkorobarrutia.

Golak: 1-0. Gorka Aiestaran. 2-0. Aitor Anton. 3-2. Peli Iturrikastillo.



Areto futboleko senior taldeak ez du oraindik partidurik galdu.

Areto futboleko senior mutilen taldeak bigarren A mailako lidergoa eskuratu du, ostiralean Zaldibiko taldeari 3 eta 2ko emaitzarekin irabazi ondoren. David Lo-

pez de Abetxukok zuzentzen duen taldeak orain arte jokatuak lau partiduetatik hiru irabazi eta bestea berdindu egin du. Sport Authority taldearekin batera, ligan partidurik galdu ez duen talde bakarra dugu Bergara. Ostiralekoa, hala ere, ez zen

garaipen erreza izan. Partidua erritmo biziz hasi zen eta bi taldeek markagailuan aurreratzeko aukerak izan zituzten. Piskana-piskanaka bergararrak nagusitzen hasi ziren eta 9. minutuan Gorka Aiestarnek lehenbiziko gola egin zuen falta jaurtiketa

bati esker, hesia eta atezaina gainditu ondoren. Handik aurrera, etxekoek partiduko minuturik hoberenak egin zituzten. 12. minutuan bigarren gola heldu zen; Ibon Agirrek baloi bat lapurtu zuen zelai erdian eta Aitor Antonek kontraerasoko jokaldia amaitu zuen. Atsedena dirira bi goleko tartearekin heldu ziren bergararrak.

Bigarren zatian Zaldibik aurrera egin zuen eta etxeko taldeak zailtasun gehiago izan zituen erasoko jokaldiak egiteko orduan. Zaldibiko entrenatzaileak asmatu egin zuen aldatetekin eta Bergarak estuasunak izan zituen defentsan. Hainbat ahaleginen ondoren, Zaldibik alde murriztea lortu zuen (2-1). Partidua amaitzeko gutxi falta zela, Aitor Vicentek bere atean gola sartu zuen, markagailuan binako berdinketa jarritz. Partidua berdinketarekin amaituko zela zirudienean, epaileak Zaldibiren kontrako penalti-falta bat adierazi zuen eta Peli Iturrikastillok partiduko gol onena egin zuen, eskuinkada bikain batekin 3 eta 2ko azken emaitza lortuz.

JOSE LUIS LETE "ELOSUKORTA" / Harrijasotzailea "Harrijasotzea hobby bezala daukat"

Jose Luis Lete "Elosukorta" (27 urte) ezin izan zuen Nartxi Saralegiren oroimenezko txapelketako finalerdietarako sailkatu, domekan Gernikan jokatuak kanporaketan laugarren geratu ondoren.

G. Bazenuen aurrera egiteko itxaropenik?

E. Egia esateko, Oñatin jokatu zen lehen kanporaketa pasatzearekin konformatzen nintzen txapelketaren hasieran. Gernikan Ostolaza eta Landarbide nituen aurkari eta zaila nuen biak gainditzea. Dena den, gauzak ez zitzaizkidan domekan nahiko bezala atera.

G. Zelako saioa egin zenuen?

E. 200 kiloko errektangularrarekin bost jasoaldi eta nulo bat egin nituen eta 125 kiloko bolarekin 15 jasoaldi, harri bakoitzarekin hiruna minutuko txandatan. Lana txukun egitera aterata nintzen, bestelako asmorik gabe baina ez nuen nere onena ematerik izan. Oñatiko kanporaketan hobeto aritu nintzen, 200 kilokoarekin 6 jasoaldi eta 125ekoarekin 17 lortu nituen eta.

G. Zein harriarekin moldatzen zara hobeto?

E. Kubikoak ditut atsegin, gehien ibili naizenak direlako. Errektangularrarekin ez naiz horrenbeste aritzen.

G. Orain, zer?

E. Udara arte ez da beste txapelketarik izango. Datoren urtean harri haundiko txapelketan parte hartzeko asmoa daukat.

G. Dirua irabazten al da?

E. Nik hobby bezala daukat. Ez dago lanbide bezala hartzerik, diru gutxi eta neke asko izaten direlako tartean.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Pisua salgai Antzuolan. 94376 65 65.

Zabalotegi dorrea. 943 76 40 24.

EROSI

Pisu txiki bat erosiko nuke Bergaran. Deitu 656 72 02 42 telefonora.

Pisua erosiko nuke Matxiategi inguruan. 649 27 54 36.

Pisua erosiko nuke Ibargain. 943 76 82 59.

ERRENTAN EMATEKO

Torremolinos. Hondartza ondoan. 943 76 33 58.

Logela bat errentan Donostian, Amaran. 943 76 55 26 (gauetz).

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alokairuan Bergaran. 689 991 070.

Bergaran edo inguruan. 943 76 03 31.

Bikote batek Bergaran edo Arrasaten. 619 15 44 06 (Fran).

Bergaran. 943 76 56 51.

ETXE KONPARTITUAK

Jacan, ski denboraldian, pisua konpartitze-

ko jendea behar da. 617 85 71 19.

Gela edo pisua konpartitzeko nahiko nuke. 943 76 06 25 (Shane).

2. GARAJEAK

SALDU

Torrekua. 943 76 00 93.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

Antzuolan, Lizarragan,

salgai edo alokairuan. 670 49 87 40.

Koldo Eleizalde. Deitu 943 76 36 34 telefonora.

Torrekua. 943 76 28 24 / 39 49 78.

Garajea salgai Bolun. Deitu 943 76 19 69 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Antzuolan, Ibarondon. Deitu 943 76 61 15 telefonora.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. Deitu 943 76 11 13 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Ibargarain, bulego lanetarako prestatuta. Deitu 607 34 46 58 telefonora.

Zubietan 136 m². Deitu 943 76 08 18 telefonora.

4. LANA

ESKAITZAK

Neskek, goizez, haurrek zaindu edo etxeko lanak 943 76 46 07.

Etxeak garbitu edo zaharrak zainduko nituzke. 600 600 531.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 34.

Haurrak zaindu edo dendari lanak egingo nituzke. 943 76 54 49.

Etxeko lanak egin, haurrek zaindu edo dendari lanak egingo nituzke. 943 76 60 56 (Joana).

Neska edozein lanetarako gertu. 943 76 00 34.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 619 15 44 06 (Fran).

Klinika laguntzaileak gaisoak edo zaharrak zainduko nituzke. 609 77 01 33 (Asia).

Urmeak zaindu arazatuz. 943 76 34 48 (Marta).

ESKAERAK

Neska behar da haurrek zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 05 55.

BEHEKO TABERNA

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74

Kamioia eta negozioa -Garraio txartela- salgai

943 76 17 25
608 773 157 / 656 308 135



Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

Jatetxerako ZERBITZARIA behar da (emakumezkoa)

943 76 20 29

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42



☎ 943 76 20 61

Esperientziadun ZERBITZARIA behar da (emakumezkoa)

610 384 896

Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 76 07 89 (gauzez).

Espenentziadun neska behar da andra edadetu bat zaintzeko. 943 76 07 24 (gauzez).

Ume elbarritu bat zaindu eta etxeko lanetarako pertsona bat behar da. 943 76 53 13.

Emakumea behar da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 943 76 38 06.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles filologian lizenziatuak klaseak eman. Deitu 943 76 30 28 telefonora (Ana).

Kitarra klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

Frantses klaseak ematen ditut arratsaldez. 943 76 55 26.

Majisteritzan diplomatuak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Ingeleseko majisteritzan diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 21 09.

Solfeko eta piano klaseak. 943 76 72 69.

OHO. 943 76 37 94

ESKERAK

Enpresaritzat mailako matematikako klaseak hartuko nituzke. 943 76 33 29 (arratsaldez).

6. IBILGAILUAK

SALDU

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Renault 19 kotxea salgai. 16 v. i. 3 milioi. 943 79 10 08.

Honda CBR 600 F motorra. 630 56 55 06.

Renault 5 (SS-P). 125.000. 943 76 26 19.

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

Ford Transit furgoneta (SS-AP) egoera onean. 943 76 02 55 (Karmelo).

Yamaha Jog Scooter motorra (90 cc.) salgai 943 73 18 72/73 12 82.

Opel Corsa. Merke eta ondo. 943 76 02 89.

Vespa Iris 200 motorra (SS-AF). 943 76 06 92.

Renault Clio Williams (SS-AP). 945 24 11 25.

Suzuki DR 650 motorra. 943 76 52 08 (Sonia).

Volkswagen Golf GTI (SS-AB). 943 76 45 13.

7. ANIMALIAK

SALDU

Hiru txakur ar eta eme bat emateko. Borondatea. 943 76 49 09.

Hamsterrak salgai. 943 76 70 15.

8. DENETARIK

SALDU

Karabina salgai egoera onean. 943 76 38 87.

Errepideko Zeus bizikleta salgai. 943 76 49 88.

Ume-kotxe estalkiduna. Deitu 943 76 06 89 telefonora.

Apalak salgai. 943 76 25 79 (gauzez).

Modema eta idazmakina elektronikoa. 619 15 44 06 (Fran)

Canyon piragua salgai. 943 76 62 63.

Piragua bat salgai. Oso egoera onean. 943 76 16 60 (Jabier).

Informatikako eta bulegoko materiala eta altxariak eta ordenagailu portatila. 607 34 46 58.

Termo bat saltzen dut. 943 76 30 83 (Juli).

Sony bideokamera prezio onean. 639 936 841.

Play stationa: 3 joku, mandoa... 20.000 PTA. 943 76 52 16.

Chaman piragua, txaleko berezia, pala eta kotxeko barrak. 50.000. 943 77 01 74 (Felix).

Airwalk snowboarda (1,55 m.) eta fijazioak salgai. 943 76 45 07.

HARTU

Familia batentzat gasukalde bat behar da. Caritas. 943 76 72 77.

GALDU

Pultsera galdu dut., urrezkoa harri urdinekin. Sarituko da. 943 76 72 76 / 12 41.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

KOMERTZIALA
Ibai eskuinaldea.
23187/8

INDUSTRI DELINEATZAILEA
Deba Behea. 25192/2

PROGRAMATZAILEA
Beasain. 25011/4

IGELTSERO LAGUNTZAILEA
Goierri. 24355/8

TELEFONO INSTALATZAILEAK
Arabar lautada.
23223/5

KOMERTZIALAK, 10
Bilbo. 23692/2

SUKALDARIAK, 4
Bilbo. 23453/4

KOMERTZIALAK, 15
Bilbo. 23698/2

TORNULARIA
Tolosa. 24210/3

TARIMA JARTZAILEA
Bilbo. 24886/2

FRESATZAILEA
Tolosa. 24212/2

ASEGURU AGENTEA
Ibai ezker aldean.
24720/3

PROGRAMATZAILEA
Goierri. 25451/1

AUTOMATA PROGRAMATZAILE IKASTAROA
Donostia. 24830/2

ESTETIZISTA
Bilbo. 24431/2

AUTOCAD IRAKASLEA
Deba Behea. 24832/2

MAKINA-ERREMINTA
Bilbo. 24800/7

MANTENIMENDU MEKANIKOA
Bartzelona. 24836/1

OBRETARAKO PIOIA
Urola. 24819/3

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Tabernarako

ZERBITZARIA

behar da

943 76 73 18

PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

Agirrebeña

JATETXEA




Agirrebeña jatetxeak zera jakinarazi nahi die bere bezero eta lagunei:

Hemendik aurrera, maitzera arte, eguakitz, zapatu eta jai bezperetan emango ditugu afariak. Zure Zerbitzura.

Ongi etorri.

Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

JOSEAN SANTORCUATO



lumatxoak eta olioak

NAHIKARI taberna

Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

UDAZKEN KULTURALA: musika korala eta bluesa

The Nomads *garaje* talde suediarra Jam aretoan

Zapatuan ospatuko den Andaluziaren egunerako iragarritako musika eta dantza emanaldiez gain, blues gaua eta Norvegiako Bergen abesbatzaren emanaldia izango dira astebukaera luze honetan Bergaran Udazken Kulturalaren egitarauaren barruan.

Red House talde madrildarrak eta Benjamin Tehoval gizon orkestrak blues gaua eskainiko digute gaur, eguakitzan, gaueko 10:30etatik aurrera Kartzela Zaharrean. Jeff Espinozak (Vargas Blues Band taldeko kide ohia) eta Francisco Simon-ek ("Caiga Quien Caiga" telebistako saioko musika taldeko kidea) osatutako taldea da Red House, askorentzat estatuko blues talderik onena.


Aurten kaleratu dute euren estraineko diskoa, taldeari izena ematen dion izenburukoa, eta bertan bildutako abestiak eskainiko dizkigute gaur Kartzela Zaharrean. Aipatutako Jeff Espinoza (kitarra, armonika eta ahotsa) eta Francisco Simonekin (kitarra) batera, Pablo Escalona (bateria) eta Peter Oteo

(baxua) izango dira taula gainean.

Red House taldearen aurretik Benjamin Tehoval gizon orkestrak joko du. Bere ahots, hanka eta eskuekin musika sortuz, blues gauaren lehen orduak girtotuko ditu. Gaurko emanaldirako sarrerak 700 pezetan salduko dira Kartzela Zaharrean bertan; gazte eta langabe-tuentzat 500 pezetan. Esan behar da abendura bitartean, beste bi blues gau antolatu nahi direla Udazken Kulturalaren egitarauaren barruan.

NORVEGIAKO BERGEN AHOTS TALDEA

Musika korala gustuko dutenek goi mailako emanaldiaz gozatzeko aukera izango dute zapatuan 20:00etan Mariaren Lagundiko elizan. Bergen taldea Norvegiako abesbatzik onenetakoa da. Grieg Akademiako kantuko ikasleek osatu zuten abesbatza eta estraineko emanaldia 1995ean egin zuten. Taldea sei abeslari profesionalak osatzen dute eta Bergarako emanaldian Carl Hogsetek egingo ditu zuzendari lanak. Tolosako abesbatzen jaialdian parte hartu izan du arrakasta handiz. Zapatuko emanaldirako sarrera doan izango da.



Carl Hogset, Bergen abesbatzeko zuzendaria.

ROCK KONTZERTUAK

Esan dezagun, bestalde, Udazken Kulturalaren barruan abendura bitartean Jam aretoan antolatuko diren rock kontzertuak zehaztuta daudela dagoeneko. Bi emanaldi izango dira, azaroaren 11n eta abenduaren 17an. Azaroaren 11n, eguena, gaueko 9:30etan, Hefner ingelesak eta Mundo Fumatore berlindarrak izango ditugu. Abenduaren 17rako hiru talde iragarri dira: Sin city six (lehenengo Pleasure Fückers), The Meows katalanak (Pazkuetan Bideberrin izan ziren) eta Teen Dogs Buenavistako faktoriako azken labealdikoak. Hiru kontzertuak Bergarako Udalaren laguntzaz antolatuko dira eta sarrerak 1.000 eta 750 pe-



The Nomads taldekoak zapatuan Jam aretoan izango dira. Eurekin batera, Tuperguarros eta Fist Fucking, Irungo Bloody Mary disko dendaren jaia ospatzeko antolatutako kontzertuan.

zetan, gazte eta langabetuentzat, jarriko dira salgai.

BLOODY MARY JAIA

Udazken Kulturaletik kanpo, zapatu gauerako rock kontzertu bikaina iragarri da Jam aretoan. The Nomads *garaje* talde suediarra, Tuperguarros eta Fist Fucking taldeak izango dira. Iruneko Bloody Mary disko dendak antolatutako jaia da eta kontzertuaz gain, Jam aretoan zein beste toki batzuetan ateratako argazkiekin erakusketa zabalduko da Jam-eko goiko aretoan.

Bestalde, astelehenerako Jam aretoan iragarrita zegoen Skunk Anansie taldearen emanaldia Donostiako Anoeta kiroldegira eroan dute. Antolatzaileak (Donostiako promotora bat) uste baino sarrera gehiago saldu ditu eta Bergaran egun beharrean Anoeta kiroldegian egitea erabaki dute ikusle gehiagorentzako tokia dagoelako.

Bukatzeko, esan dezagun, azaro eta abendurako musika emanaldien egita-



Red House taldearen diskoa.

raua ia prest dutela Jam aretoko ardura-dunek. Azaroaren 11n Rosendo eta abenduaren 18an Loquillo izango dira. Horretaz gain, abenduaren 12an Euskadi Gaztea maketa lehiaketako finalistak eta Ocean Color Scene britainiarrek ekarri nahi dituzte Bergarara, baina zahazteke dago bertan egingo den ala ez.

erreseinak



Xabier Montoia
Hezur gabeko hilak
Narrazioa

Artista polifazetikoak dugu Xabier Montoia, musikariak gain idazle proflikoa ere badugu eta: poesia, kronika, ipuingintza eta narratiba landu ditu argitaratu dituen zazpi liburuetan. Hemen aurkezten dizuegun hau zortzigarrena da eta bere bakarkako hirugarren diskoarekin batera plaza-ratu da. Lehen gerra mundialean girtuta dago nobela hau eta David Mandel eta Jean Etxegoien soldaduak dira protagonista nagusiak, oldar handi baten zain frantsesen lubakietan uzkururik daudenak...

- Susa. 203 orr. 2.000 PTA



Dena hankaz gora
Mikel Markez
Pop

Disketkez aldatu du Mikel Markezek bere bosgarren lan luzea argitaratzeko. Eta luxuzko edizioa prestatu dio, gainera, bere disketxe berriak, "Dena hankaz gora" izenburuko lanarekin batera, azkenaldian Pako Aristirekin batera landu duen "Tri-buaren hitz galduak" ikuskizunaren zuzeneko grabazioa jasotzen baita beste CD batean. Iñaki Salvador, Pello Ramirez eta Luis Camino ohiko musikariek gain, beste hainbat lagunek ere hartu du parte diskoan, tartean Michel Ducau edota Pako Aristik berak (diskoko 12 kantuen testu guztiak bereak dira).

- Gaztelupeko Hotsak. 2.100 PTA

Txapa Irratiak azarorako prestatu duen irratsaioen egitaraua aurkeztu du

Txapa Irratiak prest dauka azaroko egitaraua. Eguazten, eguen, eguakitza eta zapatueta emitituko dute. Eguaztenetan, "Psikosiaren bidetik" izeneko ipuin psikotikoen irratsaioa izango da 21:00etatik 22:00etara. Eguenetan, ordutegi berarekin, "Munduaren itzala" magazine informatiboa izango da; eguakitzetan, bi irratsaio: "Sabel iztunaren ordu ikaragarria" zineari, musikari eta abarri buruzkoa (20:00-21:00) eta "Hip-hopteka", hip-hop musikari buruzkoa (21:00-22:00).

Zapatu arratsaldeetan musika irratsaioak izango dira: 16:00etan, "X program" punk metalari buruzkoa; 17:00e-

tan, "The frontline" rock musikakoa; 18:00etan, "Jailhouse rock", hau ere rock musikari buruzkoa; 19:00etan, "No fan" musika magazinea; 20:00etan, "Desfase musical" punk musikari buruzkoa eta 21:00etan, "Falsh-back" drogei buruzko irratsaioa. Esan behar da, azaroaren 5ean, eguakitza, 21:00etatik aurrera, Hies Ekimenak egindako irratsaio berezia izango dela Hiesari buruz.

Txapa Irratia FMko 97.25 zenbakian entzunten da. Kolektiboan parte hartu edo irratsaioaren bat egin nahi duenak, zapatueta eguerdiko 12etan Zabalotegiko dorrean Bota talde antimilitaristak duen lokalean agertzea besterik ez du.

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA



Txikiak
ume eta gazteen oinetakoak

Otalora lizentziatua 21.

Tf. 943 79 44 70.



Arrasate

Eibarren Injinerutza ikisten dabillen 25 urteko gazte hau Ollagorra elkarteko presidentia da jua zan urtetik. Berrehun bazkide inguru dira Ollagorran eta elkarteko egoitza berriren dihardue egunotan.

Iñaki Zabala

Ehiztarixa ala arrantzalia?

Ehiztarixa izandakua. Eskopeterua ez, e? Arrantzan be ibilita nago.

Nondik datorkizu afiziñua?

Aitxarengandik, txikitan berarekin joaten nintzen. Oin lagata daukat.

Zertan gustorago?

Ehizan, arrantza aspergarrigagua dalako.

Zein kualidade bihar da ehizarako?

Apartekorik ez, denboriakin ondokuak eitten dabena ikisten da.

Ehizarako leku bat?

Burgoseko koto batera joaten giñen lehen, usotarako Gatzaga eta Gorlara baita...

Lagunduta ala bakarrik nahixago?

Oena, ondo lagunduta.

Hartutako piezarik onena?

Haundixena behin harrapau neban antzarra.

Jateko, arraiña ala okelia?

Ez daukat preferentziarik.

Janaririk gustokuen?

Pasta.

Sukaldari ona zara?

Gauza sinpliak eitteko, besteik ez.

Bestiengan gehixen apreziatzen dozuna?

Norbera dan modukua agertzia.

Manixa bat?

Klabikula apurtu neban arte, atzazkalak jatia.

Urtaro bat?

Udazken-eguko partia.

Animalia bat?

Txakurra. Etxian cocker bat daukagu, *Lur*.

Kolore bat?

Gorria.

Mendizalia zara?

Afiziñua bai, denboraik ez...

Inguruko mendi bat?

Txindoki.

Hobby bat?

Kirolak eta musikia.

Zelako musikia atsegin?

Erritmo bizi daukan edozein, bakailau musikia kenduta.

Kirolari bat?

Perurena, 1.000 jasoaldi ein dittu eta.

Kartetan, mus ala tutia?

Musa nahixago.

Telebista ala irratia?

Telebisiñua.

Programa bat?

"Bertatik bertara".

Ikusittako azken pelikulia?

"La guarida", intrigazkua, bi orduz buruari astintzeko ondo dago.

Liburu bat?

"La historia interminable" gustau jaten.

Clementek Realarekin, zer?

Karakterra badauka, baina entrenadoriak ez dittu golak sartzen...



BIZIAOTYOK, ERREILENOAK ETA TOSTOK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374-55

BERGARA

Gozogintzan aintzindari.

Zubieta 26
943 76 48 08

BAR LOS CAZADORES

AZAROAREN 14an, domekan, **MUS TXAPELKETA**
Izena emateko azken eguna azaroaren 13a.
Bikoteko 1.000 pezeta. Hasiera 16:30etan.

aul@xxi multimedia eta animazioa diseinu grafikoa
internet, web diseinu industriala ofimatika
photoshop maketazioa infografia 3D

Zure ikasketa zentru berria

Irakasle bat taldeko ikasleko ordenadore bana

Aula XXI. Mintegi kalea, 5 (tokieder) 20570 BERGARA

943-76 59 20

Kizkur

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



Labegaraietako eskolako neskak

Lehenago Zerrajerako eskoletan ibilitakoen argazkiak behin baino gehiagotan erakutsi dizkizuegu Erretratu Zaharrean. Aste honetakoa 1946. urte inguruan ateratakoa da eta bertan agertzen den neska taldea eskolako antzerki saio baterako prestatutakoa da. Urtero egiten ei zuten antzerkia.

Neskok zuri-zuri jantzita agertzen zaizkigu, aingeruak bezala. Kontatu digutenez, besteak beste, "a las olas de la mar, a las olas de la mar..." kantatzen jardun zuten besoak alde batetik bestera mugituz. Hona hemen argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik hasita.

Goiko ilaran: Kontxita Alberdi, Mari Karmen Altuna, Margarita Urbina eta Maria Luisa Uribarri.

Erdiko ilaran: Margarita Garitano, Rosario Mendibil, Arantza Aiastui eta Soledad Larrabaga.

Aurre aurrekoan: Rufina Iñurrategi, Nieves Gallastegi, Mertxe Urbina, Maritxu Aiastui, Aurelia Mujika, Maribel Otaño, Elisa Garmendia eta Mari Tere Alzelai.

Argazkia: Mari Karmen Garmendia

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituztu, zatoz!

Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95



zumelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA


INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



Mikropigmentazioa

Nabarmendu zure edertasuna
makilaje iraunkorrarekin



Dei egizu konpromezu barik eta behar
beste informazio emango dizugu:

943 76 31 71

LILURA



Edertze Institutua


Bidekurutzeta 7. BERGARA



AURRETIK



ONDOREN



EGUZKITZA
jatetxea

Zabaldu berria!



TABERNA



JATETXEA

Plater konbinatuak
Kazuelatxoak
Eguneko menua 850 PTA
Karta, aurrez eskatuta

Aranerreka 30. Bergara.
Telefonoa: 943 76 14 25.

Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloagan



OMU
ZERAMIKAK

**Zeramika,
arte
unibertsala**

